

5G TALDEAREN MOZIOARI EGOKITZAPENA

5Gak, telefonia mugikorraren 5garren belaunaldiak, “gauzen interneta” ekarri du. Eta horrekin bat helduko zaigu ustezko erronka handien aukera leihoa (gidaririk gabeko ibilgailuak, pertsonen eta gauzen etengabeko konexioa, urrutitik egindako ebakuntza kirurgikoak, Europako funtsei lotutako proiektu erraldoiak...), hau da, hamaika zerbitzu berri. Era berean, aztertu beharreko arrisku berriak ekarriko ditu ere, ez soilik zibersegurtasun, osasun edo ingurugiro arloetan, baizik eta mundu digitalean ematen den etikan ere.

Oraindik teknologia horrek gizartearengan zer eragin izango duen ez dakigu. Hortaz, zalantzak eta galderak mahai gaineratzeko unea da: 5Ga zertarako, nola eta norentzat?

Aditu askok ohartarazi dute 5Gak uhin gero eta indartsuagoak askatuko dituela eta horrek minbizia edo beste gaitz batzuk ekar ditzakeela. Egia da ere, gaur gaurkoz, ez dagoela kalte horiek egiaztatzen duen ikerketarik, eta kalte horiek baztertzen dituenik ere ez.

Egungo gizartearen harreman ekonomiko zein sozialetan, uneoro konektatuta egoteko beharra areagotu egin da eta ildo horretan gure gailu guztiak konektatuta izatearena: mugikorra, ordenagailua, telebista, tableta... eta horrelako dispositiboak elkarren artean konektatzea.

Nolanahi ere, kontuan hartu beharko genuke egungo konexio digitalaren egitura hori ez dela era berdintsuan eman jendartean. Bestela esanda, lehendik zeuden arrakala anitzak agerian utzi ditu. Teknologia horiek ez dira modu berean eta kalitate berarekin iritsi eta ezta iritsiko ere 5Garekin kolektibo guztiengana.

Gauzak horrela, udal batzarrari ondorengo puntuak onartzea proposatzen

zaio:

1- Zestoako Udala 5G hedatzeko luzapenaren alde agertu da, bere eskumen eta ahalmenen barruan, teknologia horren inguruko azterketak eskatuko ditu, pertsonentzat, izaki bizidunentzat eta ingurumenarentzat kaltegarria ez dela egiaztatu asmoz. Dena dela, datuen igarobideen arabera 5G teknologia jada indarrean dela azpimarratzea komeni da.

2.- Teknologiek eragindako arrakala anitzak gainditzeko helburuarekin, herritarrek teknologia berriak erabiltzeko duten eskubide berdintasuna bermatua izateko konpromisoa hartzen dugu, ondorengo arloetako bermeetan oinarrituta: osasuna, eskuragarritasuna, jasangarritasuna, pribatutasuna eta erabakitze eskubidea. Beti ere, udalak izan ditzakeen eskumen eta ahalmenen barruan.

3.- Zestoako Udalak teknologia berriak aktibatze kontratu berriak egiterakoan, kontratazio publiko sozialen irizpideak jarraituta egingo ditu.

4.- Zestoako Udalak ezarriko diren teknologia berrien gaineko auditoria publikoak eskatuko ditu, besteak beste, CO2 emisioak, pribatutasuna eta irisgarritasunari lotutako adierazleak kontuan hartuaz.

5.- Zestoako Udalak egon daitezkeen 5G teknologiaren azpiegitura berrien gaineko azterketak eskuratuko ditu.

Zestoan, 2022ko azaroaren 24an